

1. TRATAMENDUAREN ARDURADUNA ETA DATUAK BABESTEKO DELEGATUA (DPO)

Webgunearen bitartez helarazten dizkiguzun izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren arduraduna LA PREVISIÓN MALLORQUINA DE SEGUROS, SA da (aurrerantzean "PREVISIÓN MALLORQUINA"), eta honako helbide hau du: Aribau kalea 168-170, behegaina 1., (08036 Bartzelona).

Gure Datuak Babesteko Delegatuarekin (DPO) harremanetan jar zaitezke honako helbide honetan: Aribau kalea 168-170, behegaina 1., (08036 Bartzelona), edo honako helbide elektroniko honetan: sac@previsionmallorquina.com.

2. LA PREVISIÓN MALLORQUINA DE SEGUROSEK ERABILTZAILEAREN DATU PERTSONALAK ZEIN HELBURUREKIN TRATATUKO DITU ETA ZENBAT DENBORAZ?

Webgunearen bitartez emandako izaera pertsonaleko datuak PREVISIÓN MALLORQUINAK honako helburu hauetarako tratatuko ditu: Erabiltzailearen eskaera, eskabide, gertakari edo kontsultak kudeatu eta izapidetzeko eta horiei erantzuteko, baita bitarteko elektronikoen bitartez ere, "Harremanetarako" eta "Harremanetarako-Aseguruak" inprimakien bitartez edota horretarako gaitzen diren beste batzuen bitartez bere datuak ematen dizkigunean. Erabiltzailearen datuak xede horretarako kontserbatuko dira hark aurkakoa adierazten edo bere baimena baliogabetzen duen arte.

3. ERABILTZAILEAREN ZEIN DATU TRATATUKO DITU LA PREVISIÓN MALLORQUINA DE SEGUROSEK?

PREVISIÓN MALLORQUINAK Erabiltzailearen datuen honako kategoria hauek tratatuko ditu:

- Identifikazio-datuak: izena, abizenak eta NAN.
- Harremanetarako datuak: posta-helbidea, posta elektronikoen helbidea eta telefonoa.
- Erabiltzaileak ematen dizkigun eta kontsulta, gertakaria eta abar ebazteko beharrezkoak diren beste datu batzuk, PREVISIÓN MALLORQUINAK Erabiltzailearekin duen harremanaren arabera.

4. ZEIN DA ERABILTZAILEAREN DATUEN TRATAMENDUAREN LEGITIMAZIOA?

Erabiltzailearen eskaera, eskabide, gertakari edo kontsultak kudeatu eta izapidetzeko eta horiei erantzuteko, baita bitarteko elektronikoen bitartez ere, "Harremanetarako" eta "Harremanetarako-Aseguruak" inprimakien bitartez edota horretarako gaitutako beste batzuen bitartez bere datuak ematen dizkigunean, legitimazio-oinarria kontratu-harremana eta aurrekontratu-neurrien aplikazioa dira, baita datuak babesteko politika hori onartzearen bitartez emandako baimena ere.

5. ZEIN HARTZAILERI KOMUNIKATUKO ZAIZKIE ERABILTZAILEAREN DATUAK?

PREVISIÓN MALLORQUINAK ez dizkie inolako kasutan lagako datuak hirugarrenei, salbu eta legea betetzeko beharrezkoa denean edota Espainiako antolamendu juridikoak aurreikusten dituen erakunde administratibo eta/edo judizialei edo zerbitzuak emateko beharrezkoa denean; kasu horretan, aipatu hornitzaileak konfidentziasun-betebeharrari eta datuak babesteko araudiak ezarritako gainerako betebeharrei lotuta geratuko dira.

6. ESKUBIDEAK BALIATZEA.

6.1. Erabiltzaileak idazki bat bidal diezaioke DPOari, adierazi diren posta-helbidearen eta helbide elektronikoen bitartez, "Datuen Babesa" erreferentziarekin, edozein unetan eta doan, honako hau egiteko:

IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BABESTEKO POLITIKA
DATU-BIDALKETA GURE HARREMANETARAKO INPRIMAKIETAN

- Emandako baimenak baliogabetzeko.
- PREVISIÓN MALLORQUINAn Erabiltzailearekin zerikusirik duten izaera pertsonaleko datuak tratatzen ari ote diren ala ez egiaztatzeko.
- Haren datu pertsonalak eskuratzeko.
- Zehatzak ez diren edo osatu gabe dauden datuak zuzentzeko.
- Bere datuak ezaba daitezen eskatzeko, beste hainbat arrazoren artean datu horiek bildu ziren helburuetarako beharrezkoak ez direlako jada.
- PREVISIÓN MALLORQUINAtik datuen tratamenduaren mugapena lortzeko, datuak babesteko araudian aurreikusitako baldintzetakoren bat betetzen denean.
- Bere datuen eramangarritasuna eskatzea, hala badagokio.

6.2. Erabiltzaileak Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean erreklamatu ahal izango du, haren egoitza elektronikoaren edota honako posta-helbide honen bitartez: Jorge Juan kalea, 6, 28001 Madril, interesdunak uste baldin badu PREVISIÓN MALLORQUINAK datuen babesaren alorrean aplikatu beharreko araudiak aitortzen dizkion eskubideak urratu dituela.

6.3. Aurrekoa alde batera utzi gabe, interesduna PREVISIÓN MALLORQUINAKo datuak babesteko delegatuarekin harremanetan jarri ahal izango da; haren harremanetarako datuak lehen puntuan adierazi dira.